

Mikro-ipuina 2013-2014

VIII. MIKRO-IPUIN LEIHAKETA 2013


Euskara Kultur
Erakundeak eta Pamiela
Argitaletxeak antolatutik

Leihaketa bako Mikronon eman behar da eta leihaketa
antolatzen lagun.

Ipuin bakoaren gehienez 100 hitz izango dira.

Besteak:

- Euskarazko argitaletxeen liburuak dira.
- Hainbat liburu bakoaren artean.
- Marrazki liburu bakoaren liburu eta ipuina.



IX. MIKRO-IPUIN LEIHAKETA 2014

Euskara Kultur Erakundeak
eta Pamiela Argitaletxeak
antolatutik

Leihaketa bako ipuina bakoak eta ipuina bakoak
antolatzen lagun.

Ipuin bakoaren gehienez 100 hitz izango dira.

Besteak:

- Euskarazko argitaletxeen liburuak dira.
- Hainbat liburu bakoaren artean.
- Marrazki liburu bakoak eta ipuina.



Mikro-ipuinak

Iruñea, Bera, Kanbo
2013

Atarrabia, Iruñea, Ortzaitze
2014



Azala:
www.collazos.com

Gure eskerrik beroenak epaimahaikide lanetan
aritu diren lagunei:

AINGERU EPALTZA, INMA ERREA,
ANGEL ERRO, TOÑO MURO,
ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN.



© EKE, 2016

© Eusko Kultur, 2016

© Pamiela argitalpen honengatik

Diseinua eta fotokonposizioa:

Pamiela. Ezkabarte industrialdea

K31 kalea. 31194 Arre (Nafarroa)

Tel.: 948 32 65 35

pamiela@pamiela.com

www.pamiela.com

L.G.: Na-939/2016

ISBN: 978-84-7681-945-6

Nafarroan Rodona Industria Gráficak moldatu eta egina

Agustindarren industrialdea/Soltxate

A kalea, D12 nabea. 31013 Iruñea

Printed in Navarre

Mikro-ipuinak

Iruñea, Bera, Kanbo
2013



VIII. Mikro-ipuinen lehiaketa epaimahaiaren akta

VIII. Mikroipuinen lehiaketako epaimahaiak, urtero bezala, pozik ikusi ahal izan du lehiaketa honen egonkortasuna Nafarroako euskarazko ikasleen artean, oso parte hartze zabala izan duelako aurtan ere. Eta pozik hartu du, orobat, lehiaketa Iparaldeko ikasleengana iritsi izana eta herrialde horren hainbat ale irakurri eta epaitu ahal izana.

Honakoak dira kategoria guztietako aurtengo irabazleok:

D EREDUAN, Lehen Hezkuntzako kategorian, **URKO TEILETXEA** saritu dugu, *Izua* izeneko mikroipuinen egilea. Irakurlearen irudimenari ate asko irekitzen dituen ipuina da, aurretik zer gertatu den eta ondotik zer ote datorren galdetzeraren behartzen duen kontakizun arin eta esku onez idatzia. **DBH**ko sariduna **PAULA MARISCAL**en *Gure txanda* ipuina izan da, kontakizun xehea baina bigarren pertsonan eta erritmo eta tentsio handiarekin egina.

Epaimahaiak ohorezko aipamena merezitako lanen kalitatea ere azpimarratu nahi du. Ia denek bazutelako sarituak gertatzeko nahikoa maila eta merezimendua. **LH**n, **ANNE LOPEZ**en *Arkatx ilegal*a, **AINARA ETXEBERRI**aren *Gaua ipurtargientzat* eta **IRATXE MUXIKA**ren *Xardexka baten bizitza* izeneko ipuinak; eta **DBH**n, **ITXASO SAGARDO**iren *Lurrean*, **LEIRE BERGER**aren *1940 Candeleda* eta **MIGELTXO ARIZTIMUNO**-

ren *Zergatik ni?* izenekoak dira, epaimahai honen ustez, bereziki aipatzea merezi dutenak.

A EREDUKO Lehen Hezkuntzan, *Antxon arrantzalea*, **ASIERYURRITA**rena, saritu du epaimahaiak, bizitasun handiko istorio umoretsua. **DBHn**, **AGUSTIN GARRIDO**ren *Ametsetan*, elkarrizketa moduan ondua eta lehen begiratuan irudi dezakeen baino sentiberagoa. Atal honetan hiru ohorezko aipamen egin dira, tonu ezberdineko ipuinak aukeratuta: **LHn** **VICTOR SARNAGO**ren *Sagarraren bizitza* eta **JULIAN CORNAGO**ren *Eskola*; eta **DBHn** **JULEN GARCIA**ren *Arbelak* eta **DANIEL SUPERVIOLA**ren *Bakearen Jainkoa*.

Lehen aipatu moduan, Iparraldeko ikasleen ipuinak dira aurtengo nobedadea, mugaz alde bateko eta besteko haurren arteko antzekotasun zein aldeak ikusteko balio izan dezakeena. Sail honen irabazletzat, *Sagu ohoina* ipuina, **LAURENDI OIHENART-ETXART**ena, aukeratu dugu, animalien alegien usaina duen ipuin laburra. Ohorezko bi aipamen ematea ere erabaki du epaimahaiak, **ALAIA MINABERRIGARAY**ren *Kristal magikoa* eta **KATI JAUNARENA**ren *Ile apaintzailea* ipuinei.

VIII. Mikro-ipu in lehiaketa 2013



Mariasun Landa

URKO TELLETXEA ETXANDI

ANNE LOPEZ ROBLES • AINARA ETXEBERRIA TERREROS • IRATXE MUXIKA KARRION

PAULA MARISCAL SANDUA

ITXASO SAGARDOI LACOSTA • LEIRE BERGERA • MIGELTXO ARIZTIMUÑO

ASIER YURRITA ERVITI

VÍCTOR SARNAGO GOMEZ • JULIAN CORNAGO MARTINEZ

AGUSTÍN GARRIDO GORRIA JULEN GARCÍA JAIENE • DANIEL SUPERVIOLA AZPILLAGA

LAURENDI OIHENART-ETXART • ALAIA MINABERRIGARAY • KATI JAUNARENA



Psikologoa

MARIASUN LANDA



Andereñoak ipuin motz bat idazteko agindu digu. Nirea gelako motzena izan da. Horrela zioen:

«Ikastola batean haur guztiak oso txikiak ziren. Egun batean haur bat galdu egin zen eta zorri batek jan zuen. Eta inor ez zen konturatu».

Amaiera

—Benetan laburra hire ipuina! —esan dit andereñoak eta kezkatua sumatu dut.

Handik pixka batera galdetu dit ea nire ipuina gizon bati erakusten utziko niokeen eta nik baietz erantzun diot. Gizon horrek Psikologo izena du.

IHOLDI liburutik hartua (Erein)

D Eredua Lehen Hezkuntza



**URKO TELLETXEA ETXANDI
ANE LOPEZ ROBLES
AINARA ETXEBERRIA TERREROS
IRATXE MUXIKA KARRION**

Izua

Gau hartan, kapitaina itsasontziko koadernoan, urduri, hasi zen idazten, kontatzen: pasatutako egun beltzak egin ahaztezinak. Denak hilak, den-denak hilak zeuden.

Itsasontzi hartan bera zen bizirik irauten zuen bakarra. Nola adieraz zezakeen beldurra, bakardadea, barruko tristura hura? Nola ezabatu ikusi eta aditu zuena.

URKO TELLETXEA ETXANDI
Labiaga Ikastola (Bera)
LHko LEHEN SARIA

Arkatz ilegala

Bazen behin ilegala zen arkatz bat. Ezin zen jakin nolakoa zen baina badakigu pentsatzen zuenaren kontrakoa idazten zuela.

Arkatza oso maltzurra zen.

ANNE LOPEZ ROBLES

Ibarberri Eskola (Lekunberri)

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Gaua ipurtargientzat

Hemen nago zigortuta. Tutoreak dio gaiztoa naizela zeren ikastolako farola guztiak hautsi ditut. Bertze irakasle batek triste nagoela uste du baina ez, ni kontent kontent nago. Lehengo urtean ipurtargiak zeuden baina aurten ez zeren farola horiek ipurtargi gaixoak uxatu dituzte eta horregatik hautsi ditut farolak. Bihar seguru nago ipurtargi pila egonen direla. Lehengo urtean bezala.

AINARA ETXEBERRIA TERREROS
Tantirumairu Ikastola (Lesaka)
LHko OHOREZKO AIPAMENA

Xardexka baten bizitza

Serbileta baten gainean hotzez nago. Nire ezkerrean laban bat dago eta eskuinean koi-lara bat. Halako batean, esku batek hartu eta dantzan jarri gaitu.

Janaria hartu eta gure erabiltzailearen ahoan sartzen. Denetik sentitu dut: nazka, bere hortzarekin hotzikarak, autsikiak, ez dakit zergatik baina dardarak...

Imaginatzen nuena baina okerragoa zen!!!

Denbora dexente irauin dugu dantzan, gizon horrek hiru edo lau plater jan dituelako. Gero, dutxa batera eraman gaitu. Spa bat bezalakoa zen. Zoragarria!!!

Sardexka gehiago ikusi ditut eta haxe esan dit batek: «haxe izango da gure eguneroko bizitza!! Gimnasia, dutxa».

—Zoragarria!!!

IRATXE MUXIKA KARRION
Tantirumairu Ikastola (Lesaka)
LHko OHOREZKO AIPAMENA

D Eredua

Bigarren Hezkuntza

PAULA MARISCAL SANDUA
ITXASO SAGARDOI LACOSTA
LEIRE BERGERA
MIGELTXO ARIZTIMUÑO

Gure txanda

Kamerinoan zaude. Ispiluan begiratzeko zara, makilajea berrukitzen duzu eta bi pintza gehiago jartzen dituzu ilean. Pauso guztiak gogoratzen dituzu, gutxinaka-gutxinaka, hasieratik bukaerara. Eskuin, esker, bat, bi, puntetan gora, eskuin, salto, bira ezkerera. Ordua da. Sartzeko prest zaudete, neska bat urduri dago, bestea ilea ukitzen ari da, bestea salto txikitxoak ematen ditu, baina bat-batean, aurreko abestia bukatzen da. Arnasa hartu, bat, bi, hiru, lau eta lasai atera, bost, sei, zazpi, zortzi. Musika hasten da, ba, zure momentua da, joan, eta jan ezazu eszenairua.

PAULA MARISCAL SANDUA
Paz de Ziganda Ikastola (Aurrerabia)
DBHko LEHEN SARIA

Lurrean

Lurrera erori, izarrak ikusi.

ITXASO SAGARDOI LACOSTA
Biurdana Institutua (Iruñea)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

1940 Candeleda

Guda garaia zen. Kamioiak herrira iritsi ziren haurrak beste leku batera eramateko asmoz. Dani gurasoekin zegoen herriko plazan. Kamoirira igotzeko unea iritsi zen, amak estu besarkatu zuen mutil txikia masailetik behera negar malko bat zeriola, aitak berriz kopetan musu bat eman zion eta haurra lasaitzen saiatu zen.

«Denbora gutxi barru gurekin egongo zara, zin egiten dizut».

Kamioirantz abiatu zen mutil ile-kizkurra bere motxila zaharra sorbaldan zuela. Beldurra zuen, bakarrik zegoen. Halako batean, tiroak entzuten hasi ziren, atzera begiratu eta gurasoak lurrean ikusi zituen. Kamioitik salto egin eta korrika alde egin zuen handik, atzera begiratu gabe.

LEIRE BERGERA

San Fermin Ikastola (Iruñea)

DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Zergatik ni?

Ez dut nire jabea gustuko. Gehienetan kobazulo ilun eta itxi batean nago, espetxe batean atxilotuta egongo banintz bezala. Nahi duenean, nire ezkutalekutik ateratzen nau, nire ahoa lurrazalean zapaltzen du eta mugitzen nauen bitartean, odola gutxinaka galtzen noa. Gorputza, nire jabearen hozkadaz beterik dut. Niretzat haren hortzak, ezpatarik zorrotzenak dira eta min handia eragiten didate. Zer egin dut bizitza hau merezi izateko? Nire bukaera gero eta hurbilago dago eta nik mundua eza-gutu nahi dut. Kanpoan nagoenean, umeen algarak entzuten ditut, haiek jolasak. Zergatik jaioko nintzen bolígrafo? Zergatik ni?

MIGELTXO ARIZTIMUÑO
San Fermin Ikastola (Iruñea)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Lehen Hezkuntza



ASIER YURRITA ERVITI
VÍCTOR SARNAGO GOMEZ
JULIAN CORNAGO MARTINEZ

Antxon arrantzalea

Bazen behin arrantzale txiki bat. Antxon zuen izena eta Zarautzen bizi zen, hondartzaren ondoan. Egunero, goizez, arrantza egitera joaten zen. Eta egunero esaten zuen: «munduko arrainarik handiena harrapatuko dut». Baina gero Antxonek antxoa batzuk ekarri zituen. Igande batean, Antxon arrantza egitera joan zen. Bi ordu eta gero, bere kanabera hasi zen mugitzen indarrez. Antxon uretara erori zen, eta munduko arrainarik handienak jan zuen.

ASIER YURRITA ERVITI
La Compasión-Escolapios (Iruñea)
LHko LEHEN SARIA

Sagarraren bizitza

Sagarraren bizitza:
zintzilik jaiotzen da
eta murtxikatuta hiltzen da.

VICTOR SARNAGO GOMEZ
Virgen de la Cabeza (Tutera)
LHko OHOREZKO AIPAMENA

Eskola

Egun batez, eskolan nengoen eta.....

.....
.....
.....
.....
.....
.....txirrinak jo zuen!!!!

JULIAN CORNAGO MARTINEZ
San Bartolomé Ikastetxea (Ribaforada)
LHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Bigarren Hezkuntza



**AGUSTÍN GARRIDO GORRIA
JULEN GARCÍA JAIENE
DANIEL SUPERVIOLA AZPILLAGA**

Ametsetan

—Aitona.

—Zer?

—Besarkada bat emango didazu?, baina azkarra.

—Bai, baina zergatik azkarra nahi duzu?

—Ama esnatuko nauelako.

AGUSTÍN GARRIDO GORRIA
Marqués de Villena Institutua (Marcilla)
DBHko LEHEN SARIA

Arbelak

Mundo osoko arbela guztiak ez dira berdinak. Batzuk mineralak dira, baino beste batzuk plastikozkoak dira. Arbelak ez daude arbelaz eginak, ondorioz arbelak ez dira arbelak.

JULEN GARCÍA JAIENE
Príncipe de Viana Institutua (Erriberri)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Bakearen Jainkoa

Bakearen Jainkoa lanpetuta dago tronpeta jotzen. Bakearen Jainkoaren tronpetak denei zorientsu egiten zien, baina ez zuen denborarik bere burua ispiluan begiratzeko.

Egun batean, Johanek oparitan txano gorria eman zion, baina Bakearen Jainkoak ez zuen denborarik bere burua ispiluan begiratzeko.

Egun batean, Bakearen Jainkoak bere burua ispiluan begiratu zuen, bere kapela berriak nola ematen zion ikusteko, eta deskubritu zuen bera deabrua zela.

DANIEL SUPERVIOLA AZPILLAGA
Joaquin Romera Institutua (Mendavia)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Iparraldea



LAURENDI OIHENART-ETXART
ALAIA MINABERRIGARAY
KATI JAUNARENA

Sagu ohoina

Behin bazen sagu ohoin bat.

Gau batez ohe batera joan zen hortz baten ebaztera. Hortza hartu zuen eta goiza iristean bere zilora joan zen. Han ohartu zen hortza ez zuela gehiago zakuan. Mahaian jarri zen eta triste jan zuen bere gasna.

Ondoko gauean sagua berriz ohe hartara joan zen bainan haurra iratzartu zen, sagua harrapatu eta kaiola batean sartu zuen.

Haurrak ainitz jateko emaiten zion saguari ez triste izaiteko, eta batzutan erortzen zitzaizkion hortzak ere.

LAURENDI OIHENART-ETXART
Arberoako Ikastola (Donapaleu)

LEHEN SARIA

Kristal magikoa

Egun batez, neskato bat bazen Miren ize-nekoa. Mirenek bere armairuak hustu zituen ganer-huste bat egiteko. Bere armairuak hustean kristal magiko bat aurkitu zuen. Kristal magiko hau berezia zen. Zerbait galdegiten zaiolarik kristal magikoak norberaren agindua betetzen zuen. Orduan Mirenek Kristal magikoari agindu bat galdegin zion:

—«Nire armairuak bil itzazu ganer-hustera-ko prest izateko».

Eta Kristal magikoak Mirenen agindu bete zuen. Biharamunean ganer-hustean Mirenek dena saltzen ahal zuenez galdegiten zuen eta kristal magikoak baaaaaietz erantzun zion. Arratsaldean Mirenek dena saldu zuen eta izigarri kontent zen.

ALAIA MINABERRIGARAY
Amikuzeko Ikastola (Donamartiri)
OHOREZKO AIPAMENA

Ile apaintzailea

Ileak apaindu,
betiko ametsa.
Ileak moztu,
hau zoragarria.
Biloak kuskuilatu,
zer ideia ona!
Xirikordak egin,
hau da ederrena.
Zaldi buztana mugitu,
hori bai irringarria!
Tuttula begiratu,
hau da miresgarria.

KATI JAUNARENA
Louis Dassance Ikastola (Ustaritze)
OHOREZKO AIPAMENA

Mikro-ipuinak


paz de
arganda
ESKOLA




paz de
arganda
ESKOLA

*Atarrabia, Iruña,
Ortzaitze
2014*

IX. Mikro-ipuinen lehiaketa epaimahaiaren akta

IX. Mikro-ipuinen lehiaketako epaimahaiak, urtero bezala, kontent ikusi du lehiaketa honen egonkortasuna Nafarroako euskarazko ikasleen artean, gorakada doan parte hartze zabalaren izan duelako aurten ere (1200 ipuin jaso dira). Kontent hartu du, halaber, lehiaketa aurten ere Iparraldeko ikasleengana iritsi izana eta herrialde horren hainbat ale irakurri eta epaitu ahal izana.

Honako hauek dira, sail guztietan, aurtengo irabazleak:

D EREDUAN, Lehen Hezkuntzako kategorian, **Leitza**ko Erleta Ikastetxeko **IRAITZ AZURMENDI BARRIOLA** saritu dugu, *Einaren bizia* izeneko mikroipuinen egilea. Fantasiatzko nahiz errealitateko osagaiak gatz-ozpinez nahasteko eta amaiera espero gabea emateko ahalmena balioetsi diogu, bereziki.

Bigarren Hezkuntzako sariduna **Atarrabiako Paz de Ziganda** Ikastolako **NAHIA TABERNA MACEIRA**ren *Non zaude maitia?* ipuina izan da, gaztetxoaren eguneroko errealitatea modu kritiko eta aldi berean umoretsuan aztertzeko eta kontartzeko teknikak egoki erabiltzeko trebeziagatik.

Epaimahaiak ohorezko aipamena merezitako lanen kalitatea ere nabarmendu nahi du, gehienek bazutelako sarituak gertatzeko aski maila eta merezimendu.

Lehen Hezkuntzan, Tafallako Garces de Los Fayos Ikastolako GARAI MEDRANO KAREAGaren *Ahoa hutsik*, Iruñeko Frantzisko Deuna Ikastetxeko UXUE GAYARRE CORELLAren *Irudimenaren filosofoa* eta Etxarri-Aranatzeko Andra Mari Ikastolako NAROA MARTINEZ ARTIEDAren *Zizen lekua*.

Bigarren Hezkuntzan, Iruñeko Alaitz BHiko NEREA PEÑA FERNANDEZEN *Betirako amodioa*, Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolako EDURNE AIERDI COSINen *Lapurra* eta Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolako OIER ETXARRI OTERMINen *Begietara ez*.

A EREDUAN, Lehen Hezkuntzako kategorian, Iruñeko La Compasión-Escolapios Ikastetxeko IGOR SANTAMARÍA AZKONAren *Txakur mutua* saritu du epaimahaiak, ipuin irudimentsua arazoei konponbidea aurkitzearen inguruan ardaztua.

DBHn, Iruñeko Padre Moret-Irubide BHiko MAIALEN HERRERO RÍPODASen *Buru-belarri* hautatu da, poesia eta sentimendu handiko kontakizun adierazkorra.

A ereduari, sei ohorezko aipamen egin dira, jite desberdineko lanak hautatuta.

Lehen Hezkuntzan: Iruñeko La Compasión-Escolapios Ikastetxeko LEIRE PÉREZ TOLOSAren *Hartz kaxkarina*, Iruñeko Calasanz-Escolapios Ikastetxeko IKER SANZ GONZÁLEZEN *Labezomorro magikoa* eta Iruñeko La Compasión-Escolapios Ikastetxeko MARCOS URDIAN ARCEren *Txiki hartz*.

DBHn: Marcillako Marques de Villena BHIko SILVIA GUADAÑO MONENTERen *Eulia*, Iruñeko La Compasión-Escolapios BHIko MAITE TELLETXEA MARTINEZEN *Panpina* eta Burlatako Amor de Dios-Regina Pacis BHIko UNAI HARO LÁZAROREN *Egun arraro bat*.

Hasieran erran bezala, **Iparraldeko** ikasleen lanak bildu dira aurten bigarren aldiz, bozkario handiz bildu ere.

Sail honen irabazlea **Ortzaizeko ikastolako DAIA HARLOUCHET BÄRRETO** izan da *Bixkotxa* ipuinarekin, sukaldeak ere bere magikotasuna baduelakoz espero gabeko protagonista tartekatzen delarik.

Orobat, **ohorezko hiru aipamen** ematera deliberatu da epaimahaia, **Donapaleuko Amikuze Ikastolako MAIALEN CASTEGE**REN *Ilargia eta itsasoa*, **Donamartiriko Arberoa Ikastolako IDOIA AGUERRE**REN *Gizon ederraren bizia* eta **Ustaritzeko Louis Dassance Ikastolako NAHIA OTEIZA**REN *Goxotasuna* ipuinentzat.

IX. Mikro-ipuain lehiaketa 2014



Eñaut Elorrieta

IRAITZ AZURMENDI BARRIOLA

GARAI MEDRANO KAREAGA • UXUE GAYARRE CORELLA • NARDA MARTINEZ ARTIEDA

NAHIA TABERNA MACEIRA

NEREA PEÑA FERNANDEZ • EDURNE AIERDI COSIN • OIER ETXARRI OTERMIN

IGOR SANTAMARÍA AZKONA

LEIRE PÉREZ TOLOSA • IKER SANZ GONZÁLEZ • MARCOS URDIAN ARCE

MAIALEN HERRERO RÍPODAS

SILVIA GUADAÑO MONENTE • MAITE TELLETXEA MARTINEZ • UNAI HARO LÁZARO

DAIA HARLOUCHET BÄRRETO

MAIALEN CASTEJE • IDOIA AGUERRE • NAHIA OTEIZA



Itxaropena eta zarama

EÑAUT ELORRIETA



Aurpegi nekatu baina atseginarekin, berriz modan jarri den laurogeiko hamarkadako maleta zahar bat eskuan, politak izanda ere txiki geratzen zaizkion zapata zahar batzuk oinetan, eta gehiegitan garbitu duen bere soineko ederrrenaz, egunero egunero, hamabietan abiatzen da urteetan trenik pasatzen ez den geltoki abandonatura.

Han eserita ematen du eguna.

Estaziora bidean topatzen dituen guztiak agurtzen ditu hunkituta, berriro sekula ikusiko ez dituzun lagun zaharrak agurtzen diren erara.

Inork ez du ulertzen zergatik. Geltoki berria egin zutenetik burua galdu duela diote.

Egun guztia inoiz etorriko ez den trenaren zain egin ostean, zarama jaistera irteten diren herritarren barre isilen artean burumakur itzultzen da etxera.

Bere aurpegi nekatu baina atseginarekin, berriz modan jarri den larogeiko hamarkadako maleta zaharra eskuan, jadanik txiki geratzen zaizkion zapatak oinetan, eta gehiegitan garbitutako bere soineko ederrenaz, egunero bueltatzen da hamabietan estazio zaharrera.

Gaur zarama jaistea ahaztu zaie bere bizilagunei.

Lorik ezin hartu daude.

Eta ez dira lasaituko bihar hamabiak arte.

D Eredua Lehen Hezkuntza



IRAITZ AZURMENDI BARRIOLA
GARAI MEDRANO KAREAGA
UXUE GAYARRE CORELLA
NAROA MARTINEZ ARTIEDA

Einaren Bizia

Bazen behin Eina izeneko semaforo bat. Leitzan bizi zen, eta oso pozik ibiltzen zen zirkulazioa ongi mantentzen.

Poliziak etortzen zirenean, segituan gorri jartzen zen eta ordu erdi bat edukitzen zituen zain. Poliziak 15 minuturako aspertu eta pasa egiten ziren, eta orduan Pino izeneko radarra argazkia ateratzen zien multa jarritz. Dirua hortan gastatzen zuten. Beste egun batean, Leitzako festak ziren eta mozkor bat Einani pixa egiten hasi zen, eta orduan Eina oiherka hasi eta Einak argazkia atera eta mutilaren argazkia interneten zintzilikatu zuen; mutila lotsatu eta korrika joan zen. Orduetik aurrera ez zion inork pixa egin eta pozik bizi zen.

IRAITZ AZURMENDI BARRIOLA

Ereta Ikastetxea (Leitza)

LHko LEHEN SARIA

Ahoa hutsik

Kaixo, Argider deitzen naiz. Duela urte batzuk hortzak erori zitzaizkidan, baina hortz berriak ez zaizkit hazten. Atzo nire lagun bati hortz bat erori zitzaion eta burukoaren azpian jarri zuen.

Esnatzean hortzaren ordeztanpon bat aurkitu du. Txanpon batzuk buruko azpian jarri ditut, ea berriz hortzak lortzen ditudan.

GARAI MEDRANO KAREAGA
Garces de los Fayos Ikastola (Tafalla)
LHko OHOREZKO AIPAMENA

Irudimenaren filosofia

Handitan filosofoa nahi dut izan, irudimenaren filosofoa. Egia esan, filosofo bat naiz oraintxe bertan, 5 urteko filosofoa. Baina filosofo guztiek bezala teoria bat daukat. Ez daukat frogarik, baina nik imajinatzen dut, irudimenaren filosofoa naizelako.

Ni logelan nago istorio hau kontatzen eta kanpoaldean euria ari du, niretzat euria, den-dena, eraikin bat da eta lurra beheko solairua da. Goikoa erraldoein solairua da. Erraldoiak traketsak dira, ur edalontzia erori zaie eta gutxinaka nik imajinatzen dudana zorua zeharkatzen dute eta edalontziko ura euri moduan erortzen zaigu.

Eta orduan zergatik egiten ote du euri gehiago udazkenean eta neguan?

Ba, hori ez dakit, baina denbora asko daukat jakiteko, handitan filosofoa izan nahi dudalako.

UXUE GAYARRE CORELLA

Frantzisko Deuna Ikastetxea (Iruñea)

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Zizen lekua

Ni igandero bezala nire osabarekin nindoan zizak hartzera, eta beti joaten ginen leku berdinerara. Inork ez zekien leku horretan zizan zeudenik. Beti eramaten genuen hamaiketakoa eta nik beti txori bati ematen nion nire bokataren puxka txiki bat.

Behin txango bat geneukan ikastolarekin eta zizen lekutik pasatu ginenean, txoriak nire aurpegia ezagutu zuen eta txioka hasi zen. Gelako guztiak txoriarengana joan ziren baina ohartu zirenean zizak zeudela ziza guztiak hartu zituzten. Akabo nire ziza toki sekretua!

NAROA MARTÍNEZ ARTIEDA
Andra Mari Ikastola (Etxarri Aranatz)
LHko OHOREZKO AIPAMENA

D Eredua Bigarren Hezkuntza



NAHIA TABERNA MACEIRA
NEREA PEÑA FERNANDEZ
EDURNE AIERDI COSIN
OIER ETXARRI OTERMIN

Non zaude maitia?

Behar zaitudanean ez zaitut aurkitzen, bilatzen zaitudanean, zutaz ahazten saiatzen naizenean, berriz, leku guztietan zaude, begiratzen dudan bazter guztietan. Baina, ukatzen dudan arren, nire bizitzan behar zaitut. Zoriontasuna ematen didazu, inork ezin didana eman.

Nire zerua zara eta nire zorua ere bai. Nire momento onenetan zaude, baina nire momento txarretan ere. Baina orain non zaude? Bilatzen zaitudan arren, ez zaitut aurkitzen.

Nire mundua ilun dago eta zu behar zaitut pizteko. Non zaude? Mesedez agertzeko eskatzen dizut. Non zaude maitia? Nire mundua pizteko behar zaitut, nire mugikorra pizteko!

Non zaude mugikor kargatzailea?

NAHIA TABERNA MACEIRA
Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia)
DBHko LEHEN SARIA

Betirako amodioa

Borradoreak eta klarionak elkarren arteko amodioa betirako izango zela zin egin zioten. Egun batean klariona desagertu zen, baina borradoreak bazekien barru-barruan zeramala maite zuen hura.

NEREA PEÑA FERNANDEZ
Alaitz Institutua (Iruñea)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Lapurra

Nire etxean gizon bat sartu da. Oso handia da eta benetan beldurra ematen du. Beltzez jantzita dago, eta poltsa bat darama eskuan. Nire logelako atea duen zirrikitu batetik dena ikus dezaket, isil-isilean. Etxean bakarrik nago, nire gurasoak erosketak egitera joan direlako. Sukaldetik, egongelatik, nire gurasoen logelatik dirua biltzen ari da. Beldurrez beteta nago, eta bihotza ahotik atera behar zaidala sentitzen dut. Nire logelaren beste aldean, gaueko mahaian, nire mugikorra dago. Hau hartu behar dut 112ra deitu ahal izateko. Nire gurasoek diote, kasu hauetan, hori egin behar dela. Pauso txiki bat eman dut, baina ez, entzun nau.

EDURNE AIERDI COSIN

Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia)

DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Begietara ez

Partiduko azken minutua da. Nekatuta zaude, lehertuta, eta eguzkiak gogor jotzen du.

Urduri zaudela atezaina begiraten duzu, eta bera ere urduri dagoela ikusten duzu. Baloia hartu eta penaltiak jaurtitzeko puntuan jartzen duzu, gustatzen zaizun moduan. Esker hanka baloi ondoan jarrita, lau pausu atzera emana dituzu. Harmailetako jendea isil-isilik dago eta zu jaurtitzeko prest zaude. Arnasa sakon hartzen duzu eta urduritasun guztia gaitetik kentzen duzu. Orduan, bi pausu motel eman dituzu, burua altxatu eta atezainari begietara begiraten diozu. Hurrengoan ez duzu horrelakorik egingo. Ikasi duzu.

OIER ETXARRI OTERMIN

Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia)

DBHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Lehen Hezkuntza



**IGOR SANTAMARÍA AZKONA
LEIRE PÉREZ TOLOSA
IKER SANZ GONZÁLEZ
MARCOS URDIAN ARCE**

Txakur mutua

Bazen behin, etxe batean gurasoek bere semeari Ion txakur txiki bat oparitu zioten. Txakurra Azkar zuen izena eta oso polita zen. Bere lana etxea gordetzea zen eta, ezezagun bat etxera etortzen zenean, abisatu behar zuen.

Baina Azkar mutua zen eta ezin zuen zaunkatu.

Gurasoek txakurtegira eraman nahi zuten, baina Ionek ez.

Orduan, Ioni ideia on bat bururatu zitzaion: txakurraren lepoan txilin bat jartzea.

Azkar mugitzen zenean, txilinak zarata egingiten zuen eta gurasoek ezezagun bat etortzen zela bazekiten.

Orain, familia osoa pozik zegoen eta Azkar betiko oso zoriontsua izan zen, arazoak beti konponbidea dute eta.

IGOR SANTAMARIA AZKONA
Escolapios Ikastetxea (Iruñea)
LHko LEHEN SARIA

Hartz kaskarina

Bazen behin jostailu denda bat.

Bertan, jolas eta jostailu asko zeuden. Haien artean trapuz hiru hartza zeuden.

Bi oso xumeak ziren eta hirugarrena konplexuagoa zen: pilak zituen eta hitz egiten zuen.

Azken hau beste biei txintxoka aritzen zen egunero.

Handiagoa eta ederragoa zela pensatzen zuen.

Behin batean, bi ahizpa sortu ziren dendarra.

Bakoitzak hartza bat erosi nahi zuen.

Ba al dakizue ze hartzak aukeratu zituzten?

Noski baietz, trapuz bi hartza txiki eta goxoak.

LEIRE PÉREZ TOLOSA

La Compasión-Escolapios Ikastetxea (Iruñea)

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Labezomorro magikoa

Orain dela asko, existitu da labezomorro magiko bat. Labezomorro honek jendeari zor-te txarra ematen dio.

Egun batean, Jorge, Maria eta Juan eskolan daude. Oso pozik daude. Haiek, jangelan bazkaldu dute eta bat-batean, Mariak esan du:

—Ze nazka!

—Zer gertatu da? —galdetu du Jorgek.

—Labezomorro bat nire oinetan dago! —esan du Mariak.

—Lasai, nik kenduko dut labezomorroa —esan du Juanek.

—Eskerrik asko —esan dio neskak. Bat-batean, Maria bizkarrez atzera erori da aulkitik.

—Oso zorte txarra izan dut —esan dio Mariak.

—Labezomorroa izan da —esan dio Jorgek.

—Azkenik, Mariak labezomorroa zapaldu du eta aztikeria bukatu da.

IKER SANZ GONZÁLEZ

Calasanz-Escolapios Ikastetxea (Iruñea)

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Txiki hartz

Behin batean mendian bizi zen hartz txiki bat. Hartzak esan zuen oso hartz handia izan behar zuen. Hartza joan zen magoren etxera. Magok aldatu zuen hartzaren gorputza eta hartz oso handi bihurtu zen. Eta hartzak esan zuen: txikia izan nahi dut!

MARCOS URDIAIN ARCE

La Compasión-Escolapios Ikastetxea (Iruñea)

LHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Bigarren Hezkuntza

**MAIALEN HERRERO RÍPODAS
SILVIA GUADAÑO MONENTE
MAITE TELLETXEA MARTINEZ
UNAI HARO LÁZARO**

Buru belarri

Hodeiek negar egiten zuen. Olatuak orroka.
Haizeak oihukatzen zuen. Hura orkestra zara-
tatsua! Eta ni, hementxe, zarata horiei guztiei
entzungor, zure ezpainen xuxurla adituz.

MAIALEN HERRERO RÍPODAS
Padre Moret-Irubide Institutua (Iruñea)
DBHko LEHEN SARIA

Eulia

Eulitxo gaixoa, ez daki non dagoen!

Etxean hatz txikia dago eta oso temati jarraitzen dio leihotzarretik.

Eulia ez dago geldi eta hegaka dago, hatz tematia atzetik.

Ez dago zer eginik! Hatzak zapaldu du eta neskaxo irribarretsua: harrapatu dut!

SILVIA GUADAÑO MONENTE
Marqués de Villena Institutua (Marcilla)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Panpina

Ni ohean etzanda nengoen. Bat-batean nire gurasoak eta nire neba korrika etorri ziren eta nire ohera jauzi egin zuten zoriontzeko. Nire nebak opari bat zeraman. Nire urtebetetzea. Begiak itxi nituen, eta begiak ireki nituenean, kalean etzanda nengoen kartoi batek tapatuta.

Urtebete hartan oparitu zidaten panpin bakarrik gelditzen zitzaidan.

MAITE TELLETXEA MARTÍNEZ
La Compasión-Escolapios Ikastetxea (Iruñea)
DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Egun arraro bat

Egun batean entrenatu ondoren, etxera itzultzen ari nintzenean mutil batekin topatu nintzen eta mutilak esan zidan nire ania zela. Baina, bere aurpegia ez zen nire anaiaren aurpegia eta etxera joan nintzen. Etxean emakume bat eta gizon bat zeuden, baina ez ziren nire gurasoak. Emakumeak esan zidan afaria prestatzen ari zela eta musu bat eman zidan. Afaldu ondoren, lehen kalean topatu nintzen mutila etorri zen. Beldurtuta etxetik buelta bat eman nuen eta nire logela, nire logela zen; baina etxean zeuden gauzak ez nituen ezagutzen. Orduan, komunera korrika joan nintzen eta oso beldurtuta ikusi nuen ispiluan zegoen aurpegia ez zen nire aurpegia!

UNAI HARO LÁZARO

Amor de Dios-Regina Pacis Ikastetxea (Burlata)

DBHko OHOREZKO AIPAMENA

Iparraldea

DAIA HARLOUCHET BÄRRETO
MAIALEN CASTEGE
IDOIA AGUERRE
NAHIA OTEIZA

Bixkotxa

Bixkotxa bat bada, hum... Ze ona, amak erran dit ez hurbiltzea bixkotxataz, erran du bizian eginen dudan asken gauza izanen dela.

Baina sobera ona da. Bon, banoa! Anartean nehork ez nau ikusi. Oh! Ez, norbait dator, aiaiaiai!, gordetu behar naiz... uf! ez nau ikusi.

Baina, bai hor da bixkotxa, hum! Zer ona! Ah, ahantziko nuen Rebecca deitzen naiz eta euli bat naiz.

DAIA HARLOUCHET BÄRRETO

Ortzaitzeko Ikastola

LEHEN SARIA

Ilargia eta itsasoa

Ilargi batek itsasoa gomitatu zuen. Gero, ilargia arranguratua zen zeren eta itsasoa ez zen jiten. Atseko hamarretan, ilargia goitatzten zuen. Itsasoa eri zen eta ez zuen ilargiari erran eri zela. Itsasoa ziztu bizian jin zen eta ilargiaren etxera arribatu zen. Itsasoak dena eraman zuen eta ilargia ere eraman zuen bere uhainekin. Itsasoak ez zuen ikusi. Gero ilargiak oihu egin zuen, orduan itsasoak ikusi zuen. Eta itsasoak erran zuen:

—«Eri naiz horretarako dena eramaiten dut».

Eta ilargia erantzun zuen:

—«Aski doministiku egitea».

Itsasoak gelditu zuen. Gero, ilargiaren etxera joan ziren eta aperitifa eta pesta egin zuten gau guzian.

MAIALEN CASTEGE
Amikuze Ikastola (Donapaleau)
OHOREZKO AIPAMENA

Gizon ederraren bizia

Behin, bazen eguberri garaian herri ttipi batean gizon eder bat denek maite zutena. Bainan gizon hori kezkatua zen jende gehiegi hurbiltzen zitzaiolako. Egunero, ehun bat jende zituen inguruan, eta berak nahi zuen jende guttiagorekin bizi. Bat-batean ideia bat ukan zuen, laguntza Olentzero ikatzariari galdegitea. Bazekien Olentzero bakarrik mendian lanean ari zela, eta pentsatu zuen han tranquil izanen zela. Orduan, Olentzerori abisatzeko kea seinale batzuk bere tximineatik igorri zaizkion. Olentzerok hori ikusi eta onetsi zuen gizonaren eskaera. Geroztik, mundo guzian berria hedatu zen, Olentzero ez zen gehiago bakarrik ari ikatza egiten, orain gizon eder batek laguntzen baitzuen bakearen truk.

IDOIA AGUERRE
Arberoa Ikastola (Donamartiri)
OHOREZKO AIPAMENA

Goxotasuna

Goxoa da maite dugun zerbait. Izairten ahal da goxoki bat, oihal bat, ñuñu bat edo beste. Goxoa gogorarereren aurkakoa da. Adibidez norbait hiltzen delarik triste gira, gure urtebetzea delarik uros gira.

Uros, beste hitz bat da goxo erraiteko.

NAHIA OTEIZA

Louis Dassance Ikastola (Ustaritze)

OHOREZKO AIPAMENA

AURKIBIDEA



2013ko Mikro-ipu in lehiaketa

VIII. Mikro-ipu in lehiaketa epaimahaiaren akta .. 5

Psikologoa

MARIASUN LANDA.....	7
<i>Izua</i> . URKO TELLETXEA ETXANDI.....	12
<i>Arkatx ilegala</i> . ANNE LOPEZ ROBLES.....	13
<i>Gaua ipurtargientzat</i> . AINARA ETXEBERRIA TERREROS	15
<i>Xardexka baten bizitza</i> . IRATXE MUXIKA KARRION...	16
<i>Gure txanda</i> . PAULA MARISCAL SANDUA.....	19
<i>Lurrean</i> . ITXASO SAGARDOI LACOSTA.....	20
<i>1940 Candeleda</i> . LEIRE BERGERA.....	21
<i>Zergatik ni?</i> MIGELTXO ARIZTIMUÑO	22
<i>Antxon arrantzalea</i> . ASIER YURRITA ERVITI	24
<i>Sagarraren bizitza</i> . VICTOR SARNAGO GOMEZ	25
<i>Eskola</i> . ULIAN CORNAGO MARTINEZ	26
<i>Ametsetan</i> . AGUSTÍN GARRIDO GORRIA	28
<i>Arbelak</i> . JULEN GARCÍA JAIENE.....	29
<i>Bakearen Jainkoa</i> . DANIEL SUPERVIOLA AZPILLAGA ...	30
<i>Sagu ohoina</i> . LAURENDI OIHENART-ETXART.....	32
<i>Kristal magikoa</i> . ALAIA MINABERRIGARAY.....	33
<i>Ile apaintzailea</i> . KATI JAUNARENA.....	34

2014ko Mikro-ipu in lehiaketa

IX. Mikro-ipu in lehiaketa epaimahaiaren akta....37

Itxaropena eta zarama

EÑAUT ELORRIETA.	43
<i>Einaren Bizia.</i> IRAITZ AZURMENDI BARRIOLA	47
<i>Aboa hutsik.</i> GARAI MEDRANO KAREAGA.....	48
<i>Irudimenaren filosofia.</i> UXUE GAYARRE CORELLA	49
<i>Zizen lekua.</i> NAROA MARTÍNEZ ARTIEDA.....	50
<i>Non zaude maitia?</i> NAHIA TABERNA MACEIRA.....	53
<i>Betirako amodioa.</i> NEREA PEÑA FERNANDEZ.....	54
<i>Lapurra.</i> EDURNE AIERDI COSIN.....	55
<i>Begietara ez.</i> OIER ETXARRI OTERMIN.....	56
<i>Txakur mutua.</i> IGOR SANTAMARIA AZKONA.....	59
<i>Hartz kaskarina.</i> LEIRE PÉREZ TOLOSA	60
<i>Labezomorro magikoa.</i> IKER SANZ GONZÁLEZ.....	61
<i>Txiki hartz.</i> MARCOS URDIAIN ARCE	62
<i>Buru belarri.</i> MAIALEN HERRERO RÍPODAS.....	65
<i>Eulia.</i> SILVIA GUADAÑO MONENTE.....	66
<i>Panpina.</i> MAITE TELLETXEA MARTÍNEZ	67
<i>Egun arraro bat.</i> UNAI HARO LÁZARO	68
<i>Bixkotxa.</i> DAIA HARLOUCHET BÄRRETO.....	71
<i>Ilargia eta itsasoa.</i> MAIALEN CASTEGE.....	72
<i>Gizon ederraren bizia.</i> IDOIA AGUERRE	73
<i>Goxotasuna.</i> NAHIA OTEIZA	74

Mikro-ipuinak 2013-2014

liburuaren inprimaketa 2016ko
maiatzan burutu zen
Rodona Industria Gráfica moldiztegian,
fotokonposiziorako
A Garamond, Myriad eta Lance
letra motak erabiliz.
Lehenbiziko edizio hau
bi mila eta bostehun alekoa
izan da.



Mikro-ipu in lehiaketa

Irakurle hori: mikro-liburu honetan hogeita hemeretzi testu biltzen dira. Horietatik hogeita hamazazpi sarituak izan dira Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak Nafarroan antolatu duten VIII. eta IX. Mikro-ipu in lehiaketetan. Horiekin batera Mariasun Landaren eta Eñaut Elorrietaren mikro-ipu in bana aurkituko dituzu ere. Guztiak zuretzat opari.

Mariasun Landa • Urko Telletxea Etxandi • Anne Lopez Robles

Ainara Etxeberria Terreros • Iratxe Muxika Karrion • Paula Mariscal Sandua
Itxaso Sagardoi Lacosta • Leire Bergera • Migeltxo Ariztimuño • Asier Yurrita Erviti
Víctor Sarnago Gomez • Julian Cornago Martinez • Agustín Garrido Gorria
Julen García Jaiene • Daniel Superviola Azpillaga • Laurendi Oihenart-Etxart
Alaia Minaberrigaray • Kati Jaunarena

Eñaut Elorrieta • Iraitz Azurmendi Barriola • Garai Medrano Kareaga

Uxue Gayarre Corella • Naroa Martinez Artieda • Nahia Taberna Maceira
Nerea Peña Fernandez • Edurne Aierdi Cosin • Oier Etxarri Otermin
Igor Santamaría Azkona • Leire Pérez Tolosa • Iker Sanz González • Marcos Urdian Arce
Maialen Herrero Rípodas • Silvia Guadaño Monente • Maite Telletxea Martinez
Unai Haro Lázaro • Daia Harlouchet Bärreto • Maialen Castege • Idoia Aguerre
Nahia Oteiza

